

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Mungiako Udala**

**Udal kale-izendegia aztertzea eta eguneratzea. Udalerriko bide publiko batzuei izena imintea eta beste kale batzuetako zenbakiak aldatzea.**

Honekin batera 2021eko ekainaren 25eko Osoko Bilkuran zenbait kaletako zenbakiak ezartzeari, kale horiei izen berriak jartzeari eta izen bat aldatzeari buruzko gaiaren inguruan hartutako akordioa doakizu. Aipatutako kaleak honako hauek dira:

- Kale berrien izenak:
  - Kofradisuertea.
  - Mastizarra.
  - Goikobasotxueta.
  - Manugarrenalde.
  - Emaldi.
- Kalearen lehengo izena
  - Matíñe kalea.
- Kale berriaren izena:
  - Matiena kalea.

Aipatutako kaleetan dauden higiezinaren zenbaki berriak honekin batera doaz I. eranskinean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 legearen 83. artikuluan esandakoari jarraituz, 30 eguneko informazio-publiko epea hasiko da, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edozein pertsona fisiko zein juridikok espedientea aztertu eta egokiak deritzon alegazio, iradokizun edota erreklamazio aurkeztu ahal ditzan.

Espedientea eskuratzea ohiko bitartekoen bidez eskatu ahal izango da, hau da Mungiako Udaleko HAZ bidez edo Egoitza Elektronikoen bidez.

Mungian, 2021eko uztailaren 2an.— Alkatea, Ager Izagirre